

## Botua Euzkadirentzat

*Deia*, 1977-06-14.

Espainiako Estatuan ez da aspaldian honelako aukerarik izan.

Honek ez du esan nahi, ondorioz, guri tokatzen zaigun aukera hau erregalu bat denik. Estatu honetako herrien artean inork ezagutza eta eskerrik merezi badu, Euzkadi da. Baina aukera garesti hau guri ere tokatzen zaigunez, ahalegindu behar genuke gertaldi honetaz baliatzen.

Badakigu nondik norako ahaleginekin hauteskunde hoiek eratuak izan diren; gure Herria da, batez ere, Suarez-tarrak egiten ari diren maniobra eta manipulazio guztien ondorio bezala gehien galduko duena.

Baina diogu gu zatitzeko egiten ari den ahaleginetan lagundu behar. Aitzitik, Herri bezala behar dugu zentzu batekin jokatu.

Alkateek erakutsi dute zentzu hau.

Badakigu alkate hoiek ez direla guk nahi ditugun bideetatik sortuak izan, eta badakigu alkate hoiek eskuetan duten agintea ez dela demokratikoa; badakigu ere, ordea, gaur Euskal Herriaren alde ari direla lanean alkate hoietako batzu.

Azken agiria lekuko.

*Abertzale bota zazu* izan da alkate hoiien aholkua, kontsejua. Gaur gure Herriko alkate hoiek erakusten duten honetan, lau puntu dira garbiak: hauteskunde munizipalak behar ditugu berehala, gure Herriaren eskubideak defendatu, Euzkadi batu eta bere Autonomia, lortu behar dugu.

Ez gara alkate hoiekin beti bat egon, ez dugu alkate hoietako bat ere ezagutzen; baina gure Herriaren zentzuarekin bat datozen honetan, behar diegu zor zaiena aitortu.

Beste arazoa da, noski, Euzkadirentzat botuak indar gehien egingo duen bidea aukeratzea. Hori, nork daki? Gure Herriko indar abertzale guztiek usteko dute beren bidea dela onena. Bidezko baita. Eta badaiteke denak bide berean joatea. Hala ere, nik aitortu nahi dut hemen kezka bat: zatiturik ematen ari garen botuak ez al zaizkigu bidetxurretan galduko?

Denak Euzkadi plural batentzat bihar pilo bera egiteko modurik balego.